

**2007ko IRAILAREN 6an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2007ko irailaren 6an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria adierazi dute:  
Iñigo Aginalde Lertxundi  
Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: M<sup>a</sup> Eugenia Muñoa Irureta

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarreko aktak onestu, hala badagokio:
  - 2007ko uztailaren 26an ospatutako ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. Larraulgo Herri Ostaturako jarduera proiektua onartzea, hala badagokio.
4. Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unidateko urbanizazio obrangatik Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuak ipinitako abala itzultzea, hala badagokio.
5. Plaza inguruan itxiturak ipintzeko kontratu administratiboa esleitzea, hala badagokio.
6. Herri Ostatuan egin diren zenbait erosketeten inguruan dagokion erabakiak hartzea.
7. Musika ikastaroak burutzeko dirulaguntzei buruz dagokion erabakia hartzea.
8. San Esteban Elizako aterpearen inguruan aurkeztu den idazkiaren berri ematea.
9. I. O. D. jaunak eskatutako obra baimena ematea, hala badagokio.
10. A. A. andereak eskatutako obra baimena ematea, hala badagokio.
11. K. J. S. jaunak eskatutako obra baimena ematea, hala badagokio.
12. X. M. P. jaunak eskatutako obra baimena ematea, hala badagokio.
13. Fakturak eta ordainketak.

14. Beste batzuk.
15. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

Bilkura 21.00 orduak direnean hasi da.

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### ***ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.***

- ▣ 2007 urteko uztailaren 26ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren beratartuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### ***ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA***

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

21/2007 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 31koa, A. V. T. Juanari U. auzoa XXko ezkutuko lanengatik zehapen espedientea irekitzea erabakitzen duena.

22/2007 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 31koa, 2007ko ZPEE eta Udalen arteko hitzarmenaren barruan O. A. E. anderea kontratatzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### ***LARRAULGO HERRI OSTATUKO JARDUERA PROIEKTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.***

Ikusirik Larraulgo Herri-Ostatu tabernako jarduera baimena izapidetu beharra dagoela.

Ikusirik E. E. B. andreak idatziriko proiektua, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2007ko abuztuaren 24an bisatua.

Bertaratuek, gaia aztertutik, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- E. E. B. arkitektuak idatziriko Herri Ostatuko jarduera proiektua onartzea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO AA.SS-ETAKO 2.1 EXEKUZIO UNIDADEKO URBANIZAZIO OBRANGATIK GESTION Y DESARROLLO GOIARGI, S.L. BALTZUAK IPINITAKO ABALA ITZULTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik R. R. A. jaunak Gestio y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuaren izenean, Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unitateko urbanizazio lanak bermatzeko Udaletxean jarria zuen 2004032915 zenbakidun 92.266,50 euoroko abalaren itzulera eskatzen duela.

Ikusirik 2006ko irailaren 5ean ospatutako Udalbatzak Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unitateko urbanizazio lanen errezepziona onartu zuela.

Ikusirik Udaleko Teknikari aholkularia den E. E. B. andreak 2007ko irailaren 4an luzaturiko txostenean ondorengoa dioela:

*Abuztuaren 28an ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren 2.1 unitateko urbanizazioa ondo dagoela informatzen dut eta kalte adierazgarri nabarmenik ikusten ez direnez, egokia izango da urbanizazioaren abala bueltzea.*

*Dena den, plazaren erdiko berdegunean zuhaitz batzuk lehortu direla ikusten da. Horregarik, komenigarria izango litzateke zuhaitzeko 150€-ko fidantza moduko bat finkatzea, abenduaren hasieran berriz landatzeko konpromisoarekin.*

Ikusirik lehortuta dauden zuhaitzak zortzi direla.

Gaia azterturik bertartuek, aho batez

#### **ERABAKITZEN DUTE**

**LEHENGOA,-** Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuak aurkezturiko eskaera jendaurrena ipintzea hamabost egunetako epean egoki deritzonak erreklamazioak tarteratu ditzan.

**BIGARRENA.-** Aipatu epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ezean eta beti ere lehortu diren zortzi zuhaitzak abenduan landatuko direla bermatzeko 1.200 eurotako bermea ipini ondoren Udaletxean, Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuari 2004032915 zenbakidun 92.266,50 euoroko abala itzultzea. 1.200 eurotako berme hau zuhaitzak landatu eta sei hilabetera itzuliko da.

**BOSGARREN PUNTOA**

**PLAZA INGURUAN ITXITURAK IPINTZEKO KONTRATU  
ADMINISTRATIBOA ESLEITZEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik plaza inguruan, herriko plazatik ostatura dijoan zati edo gunean eta urbeltz auzoa sarreran dagoen petrilean itxiturak jartzea beharrezkoa dela hiritarren segurtasuna bermatzeko.

Ikusirik Sarelan baltzuak lan hauek egiteagatik aurkeztu duen aurrekontua 772,56 eurotako dela.

Ikusirik Idazkari andreak 2007ko irailaren 4an luzaturiko txostena non kontratu honetarako gehieneko aurrekontu zenbatetsia ikusita, izenpetzailearen ustez, bidezkoa den kontratu hau hornidura-kontratu txikiaren moduan egitea, kontratuen legeak 176. artikulua xedatutakoaren babesean.

Modu honetan nahikoa izango da gastua honartu eta faktura espedientean sartzea, Kontratuen legeko 56. artikulua arira.

Bertaratuek, gaia azterturik, aho batez

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Plaza inguruko itxiturak egiteko kontratu administratiboa Sarelan baltzuari esleitzea 772,56 eurotako kopuruan.

**SEIGARREN PUNTUA**

**HERRI OSTATUAN EGIN DIREN ZENBAIT EROSKETEN INGURUAN  
DAGOKION ERABAKIAK HARTZEA.**

Ikusirik Larraulgo Herri Ostatu tabernaren esleipeduna den T. P. jaunak eskaintzen den zerbitzua hobetu asmoz, baxera berri bat erosi duela, 1.131,68 eurotako aurrekontua duena lehen zegoena ez baitzen egokia.

Era berean sukalderako tresneria (mahaia) hornitzeko aurrekontu bat aurkeztu duela.

Ikusirik T. P. jaunak udaletxean gastu hauen kargu udala egin dadin eskaera egin duela.

Gaia azterturik, aho batez, bertaratuek

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Herri Ostatuko esleipenduna den T. P. jaunak burutu duen eskaera zati baten onartzea, eta baxera erosteagatik egin duen gastua onartu, bere ordainketa burutu eta herri ostatuko udalaren tresnerien inbentarioan sartzea.

BIGARRENA.- Sukaldean ipini behar den mahaiari dagokionez aurrekontu gehiago aurkeztu ditzan eskatzea, une horretan berriro ere gaia aztertuko delarik.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

**MUSIKA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZEI BURUZ DAGOKION ERABAKIA HARTZEA.**

Udalbatzak musika ikastaroak eta beste jarduera batzuk, hala nola, euskara ikastaroak edo kirol jaurderak udalaren dirulaguntza jaso behar duten edo ez eztabaidatu dute eta azkenik gaia mahai gainean gelditu da hausnarketa sakonago bat egin ostean dagokiona erabakitzeko.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

**SAN ESTEBAN ELIZAKO ATERPEAREN INGURUAN AURKEZTU DEN IDAZKIAREN BERRI EMATEA.**

Ikusirik San Esteban elizako zimenterioa baldintza ez egokitan aurkitzen zela eta udala Gotzaitegiarekin kontaktuan ipini zela bere konponketa burutu zezan herritarrentzat segurtasun baldintzak ez bait ziren bermatzen.

Ikusirik uztailean bertan lanean jardun zutela inolako obra baimenik eskatu gabe eta egiten ari ziren obraren berri emateko eskatu zitzaizela.

Ikusirik Larraulgo apaizak 2007ko abuztuaren 2an idazki bat aurkeztu zuela, zein Idazkari andreak irakurtzen duen, laburbilduz, ondorengo adierazten delarik: egoera okerrean zegoen habea erreforzatu egin dela berehalako arriskua ekiditeko eta irailean beste lau heberen konponketa burutuko dela adierazten da.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

**I. O. D. JAUNAK ESKATUTAKO OBRA BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik I. O. D. jaunak 2007ko abuztuaren 7an aurkeztutako obra baimen eskaera, non S. XX ezker eta eskubiko jabeen artean bi etxeen atzekaldeko jardinean 2x3 metroko lurzoru pixka bat baldosaz estaltzeko baimena eskatzen duen.

Ikusirik aurkeztu den aurrekontua 500 eurotakoa dela.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andereak 2007ko irailaren 4an luzaturiko txostenean ondorengo adierazten duela.

*“... Larraulgo arauen 38. Artikuluak honela dio:  
Los espacios ajardinados privados que surjan en las parcelas deberán recibir tratamiento de jardinería al menos en un % de su superficie.  
Aurrekoak ikusirik, partzela pribatuen berdegunea %50 baino gutxiago ez bada, egokia izango da udal baimena ematea.”*

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA,- I. O. D. jaunari, S XX etxearen atzekaldean baldosazko lurra ipintzeko obra baimena ematea, beti ere Udal Teknikariak bere txostenean adierazitako baldintza bete beharko duelarik, hau da, partzela pribatuaren berdegunea ezingo da %50 baino gutxiagokoa izan.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordentza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

#### **HAMARGARREN PUNTUA**

#### **A. A. ANDEREAK ESKATUTAKO OBRA BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik A. A. andereak 2007ko abuztuaren 21ean eskaturiko udal baimena, non S. baserriko lursailean pareta zaharra konpondu eta harri lubeta edo eskoilera berri bat egiteko baimena eskatzen duen.

Ikusirik lan hauen aurrekontua, 10.676 eurotakoa dena, aurkeztu duela.

Ikusirik 2007ko irailaren 4an Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andereak luzaturiko txostenean ondorengo adierazten dela:

*“... Larraulgo Arau subsidiarioen 50 artikuluan landa bideen baldintzak finkatzen dira:*

*En caso de no poder evitar la construcción de muros, los mismos se construirán con manpostería de piedra. En ningún caso se permitirá dejar vistos los muros de hormigón. Los muros de gaviones de piedra se cubrirán con plantas enredaderas...*

*Beraz, udal baimena emateko, bete lan hauek belarrez erein beharko dira eta harri lubeta edo eskoilera landare igokariz estali”.*

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- A. A. andereari S. baserriko lursailean pareta zaharra konpondu eta harri lubeta edo eskoilera berri bat egiteko udal baimena ematea, beti ere Udaleko Aholkulari Teknikariak adierazitako baldintza bete beharko delarik, hau da, bete lanak belarrez erein beharko dira eta harri lubeta edo eskoilera landare igokariz estali.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

#### **HAMAIKAGARREN PUNTUA**

#### **K. J. S. JAUNAK ESKATUTAKO OBRA BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik 2007ko abuztuaren 31an K. J. S. jaunak O. lursailean terrenoak berdintzeko lehen zegoen harrizko eustorma konpontzeko udal baimena eskatu duela.

Ikusirik 1.200 euroko aurrekontua aurkeztu duela.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andereak 2007ko irailaren 4an luzaturiko txostenean ondorengo adierazten duela.

*“... Larraulgo Arau subsidiarioen 50 artikuluan landa bideen baldintzak finkatzen dira:*

*En caso de no poder evitar la construcción de muros, los mismos se construirán con manpostería de piedra. En ningún caso se permitirá dejar vistos los muros de hormigón. Los muros de gaviones de piedra se cubrirán con plantas enredaderas...*

*Beraz, udal baimena emateko, bete lan hauek belarrez erein beharko dira eta harri lubeta edo eskoilera landare igokariz estali”.*

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- K. J. S. jaunari O. lursailean terrenoak berdintzeko lehen zegoen harrizko eustornoa konpontzeko udal baimena ematea, beti ere Udaleko Aholkulari Teknikariak adierazitako baldintza bete beharko delarik, hau da, bete lanak belarrez erein beharko dira eta harri lubeta edo eskoilera landare igokariz estali.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA**

#### **X. M. P. JAUNAK ESKATUTAKO OBRA BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik 2007ko abuztuaren 31an X. M. P. jaunak garajeen baldosa ipintzeko udal baimena eskatu zuela.

Ikusirik Idazkari andreak Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreak 2007ko irailaren 4an luzaturiko txostenaren berri eman duela non mota hauetako lanek udal baimenik behar ez dutela informatzen duen.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

### **HAMAIRUGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

- IBERDROLA	140,84 €
- IBERDROLA	137,46 €
- IBERDROLA	149,55 €
- IBERDROLA	1.047,36 €
- IBERDROLA	57,26 €
- IBERDROLA	73,49 €
- IBERDROLA	183,08 €
- IBERDROLA	151,57 €
- IBERDROLA	149,70 €

- IBERDROLA	19,06 €
- DISTRIBUCIONES LOPETEGUI	253,72 €
- DISTRIBUCIONES LOPETEGUI	234,77 €
- HOSTEMAN	228,86 €
- GSM	1138,03 €
- ARGITU	101,15 €
- IRATZE	243,07 €
- TELEFONICA	0,70 €
- TELEFONICA	29,20 €
- TELEFONICA	89,08 €
- TELEFONICA	18,72 €
- TELEFONICA	15,89 €
- E. E. B.	2121,00 €
- KIROLZER	136,25 €
- YOLANDA ETXEBERRIA	225,00 €
- JOXEAN ALTUNA	141,24 €
- REPSOLGAS	17,72 €
- REPSOLGAS	5,53 €
- REPSOLGAS	108,89 €
- MRW	21,18 €
- GSM	1138,03 €
- EUSKALTEL	112,75 €
- DIONISIO ORMAZABAL	48,49 €
- FERRETERIA BARBE, S.L.	30,94 €
- HOSFRINOR	170,72 €
- ARGITU	192,68 €
- IZFE, S.A.	40,23 €
- GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	96,25 €
- BABESA SUZAI, S.A.	1.909,12 €
- ZAZPITTURRI	1296,81 €
- KIROLZER	136,25 €
- ETXEBERRI	400,20 €

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **12.811,84 Euro**tako kopurua osatzen dutenak onartzea.

**HAMALAU GARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK.**

*Udal Batzarrak presazko eta premiazko arrazoiak direla medio aho batez gai zerrendatik at dauden hurrengo gaiak eztabaidatzea erabakitzen du.*

- *2006 urteko kontu orokorra behin betikoz onartzea, hala badagokio.*

Ikusirik 2006 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkien.

Ikusirik 2007ko uztailearen 19an argitaratu dela iragarkia GAO-n eta jendeaurreko epea ireki dela 2007ko uztailearen 20etik 2007ko abuztuaren 7a bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2006 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespina ematea.

BIGARENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

- *2007 urteko larraulgo festetako likidazioa onartzea, hala badagokio.*

Alkate Lehendakari jaunak 2007 ekitaldian ospatutako San Esteban eta San Bartolome jaien likidazioaren berri eman die udalkideei, ondorengo laburpenaren arabera:

**DIRUSARRERAK:**

- Bankuetxean	1,77 €
- Udalaren ekarpena	9.000,00 €
- Propaganda (laguntzaileak)	540,00 €

- Herri afaria	51,00 €
- Sagardo dastaketa	129,50 €
- Mus txapelketa	180,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.902,27 €</b>
<b>ORDAINKETAK:</b>	
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.539,25 €</b>
<b>BALANTZEA</b>	<b>-1.636,98 €</b>

Era berean eta egon den sarrera eta gastuen arteko desfasea kuadratzeko 1.650,00 euroko dirulaguntza berri bat esku du.

Gaia azterturik, bertartuek, aho batez

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2007 urteko Larraulgo San Esteban eta San Bartolome festetako likidazioa onartzea eta sarrera eta gastuen arteko desfasea berdintzeko 1.650,00 eurotako ekarpena burutzea.

- **M. O. jaunak eskatutako obra baimena ematea, hala badagokio.**

Ikusirik M. O. jaunak G. baserriko lursailean terrenoa lautzeko asmoz, 10m luzerako harrizko eustorma bat egiteko obra baimena eskatu duela.

Ikusirik 100 euroko aurrekontua aurkeztu duela.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andereak 2007ko irailaren 4an luzaturiko txostenean ondorengo adierazten duela.

*“... Larraulgo Arau subsidiarioen 50 artikuluan landa bideen baldintzak finkatzen dira:*

*En caso de no poder evitar la construcción de muros, los mismos se construirán con mampostería de piedra. En ningún caso se permitirá dejar vistos los muros de hormigón. Los muros de gaviones de piedra se cubrirán con plantas enredaderas...*

*Beraz, udal baimena emateko, bete lan hauek belarrez erein beharko dira eta harri lubeta edo eskoilera landare igokariz estali”.*

Ikusirik era berean Udal teknikariaren txostenean jarritako lanen balioaren kopurua errealitatearekin bat ez datorrela adierazten dela 600 euroko aurrekontua erabiltzea proposatzen da.

Ikusirik Alkate jaunak adierazi duela lanak eskatzaileak berak egingo dituela eta erakutsitako fakturen arabera bidezkoa dela aurkeztutako 100 eurotako aurrekontua.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- M. O. jaunari G. baserriko lursailean terrenoa lautzeko asmoz, 10m luzerako harrizko eustorma bat egiteko obra baimena ematea, beti ere Udaleko Aholkulari Teknikariak adierazitako baldintza bete beharko delarik, hau da, bete lanak belarrez erein beharko dira eta eustorma landare igokariz estali.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordentza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea, aurkeztutako aurrekontua oinarri ezargarrizat hartuta.

- **Eusko Jaurlaritzako etxebizitza eta gizarte gaietako sailak hobekuntza obrak burutzeko eta hiriingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren ekipamenduak erosteko onartutako dirulgauntza deialdiaren berri ematea.**

Ikusirik Idazkari andreak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 200ko abuztuaren 2ko agindu bidez, hobekuntza obrak burutzeko eta hiri ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren ekipamenduak erosteko onartutako dirulgauntza onartu zuela adierazi duela.

Ikusirik Larraulgo Udalak Herri Ostatu tabernako komunak irisgarritasun arauak betetzeko lanak burutu dituela.

Ikusirik bestalde, urbeltz auzoko oinezkoen ibilgunea bermatzeko San Estaban plazako sarreran lorontzi batzuk eta pibote bat jarriko direla.

Gaia azterturik, bertaratuek

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte gaietarako Sailburuaren Aginduaren babesean ondorengo proiektuentzat dirulaguntza eskatzea:

- Herri Ostatuko lanak.
- Urbeltz auzoa eta San Estaban plazan oinezkoen ibilgunea bermatzeko ekipamendu erosketak.

- **Asteasuko Udalak aurkeztutako proposamenaren berri ematea.**

Ikusirik Asteasuko Udalak “Euskalherria” aldizkaria eta “Asteasuko Mendizaleak” taldeen lankidetzarekin Ernio barrutia eta inguruaren plastikozko Mapa-Mural 3D erliebean (67x48cm) egiteko asmoa duela.

Ikusirik Larraulgo Udalari ale batzuk eskuratzeko aukerari buruzko proposamena bidali diola, honako hauek izango direlarik prezioak:

- Denen artean 1500 ala baino gutxiago, ale bakoitza 10 €.
- 3000 ale eskatzen badira 7€ aleko.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Ernio barrutia eta inguruaren plastikozko Mapa Muralen 30 ale eskatzea.

- **J. L. A. jaunak aurkeztutako proposamenaren berri ematea.**

Ikusirik J. L. A. jaunak, Larraulen udalaren bitartez Yogako klaseak emateko proposamena aurkeztu duela.

Ikusirik udalari azpiegiturak ipini ditzan eskatzen diola, hala nola, klaseak emateko gela edo lokala, materiala (esterillak, mantak, arbela) eta musika.

Ikusirik klaseak astean bi egunetan izango liratekeela eta ikastaroaren kostua hileko eta pertsonako 50,00 €koa.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- J. L. jaunari adieraztea mota honetako jarduerak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatzen dituela, egoki baderitzo bertara zuzendu dezakeelarik eskaera.

- **Kirol azokaren berri ematea.**

Idazkari andreak Kolonian ospatuko den kirol azokaren eta bertara joateko bidaiaren berri eman du, bertaratuak jakinaren ganean gelditu direlarik.

**HAMABOSTGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkeztu.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 23.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA